



1 Boletina. 2007ko martxo

AURTZAROA ETA INGURUMENA



Kaixo, INMA parte-hartzaileak!

Bidaltzen dizuegun lehen boletin honen bitartez, lehenik eskerrak eman nahi genizkizuen INMA estudioan parte hartzeagatik eta guregan jarri duzuen konfidantzagatik.

Bigarrenik, esan, gure helburua, zuen etxeetara sei hilabetero informazio boletin bat bidaltzea dela, zuen eta gure arteko komunikazioa lortu nahirik.

Jarraian, momentura arte ditugun datu batzuen berri ematen

dizuegu. Interesgarria izango zaizuela espero dugu.

DAGOENKO 329 EMAKUMEK PARTE HARTZEN DUTE INMA IKERKETA PROIEKTUAN ETA 97 HAUR JAI DIRA MARTXOAREN ARTE.

Haurren datuen berri, hurrengo boletinean luzatuko dizuegu, ordurako datu gehiago izango baititugu jasoak.

Jarraian, parte-hartzaileen inguruko datu batzuk luzatzen dizkizuegu:


-Parte hartzen duten emakumeen batez besteko adina 32 urtekoa da, hauetatik helduenak 43 urte dituelarik eta gazteenak, aldiz, 22 urte.

-Parte-hartzaileen bikoteen batez besteko adina 34 urtetakoa da.

-Emakumezkoen % 44k 20 urte baino gehiago daramatza Urola edo Goierriko eskualdeetan bizitzen.

-Parte-hartzaileen % 40,5entzat hau izango da euren lehenengo seme edo alaba; %41,9rentzat, aldiz, bigarren haurra, eta %17,6rentzat, hirugarrena edo gehiago.

Parte hartzen duzuen emakumeak Goierriko eta Urolako eskualdeetan bizi zarete, baina jarraian datorren irudian ikusi ahal izango duzue zehazki nola banatzen zareten herriz-herri eskualdeetan barrena:



-Ikasketa mailei dagokienean, % 51,5ek Unibertsitate mailako ikasketak ditu, %35,2k bigarren mailako ikasketak (BUP, COU edo FP) eta %12,8k lehen mailako ikasketak (EGB edo ESO).

Lanari dagokionez, hau da banaketa ehunekotan:

- Langilea: %74
- Baja: %7,5, lehen elkarriketa egiteko momentuan
- Etxekoandrea: %7,9
- Langabetua eta ikaslea: %10,6

-Elikadurari dagokionean, soilik aipatu nahiko genuke, haurdun egon aurretik eta ondorengo elikaduraren artean dauden aldaketak, janari taldeei dagokienean zein ehunekotan handitu den hauen kontsumoa:

- Esnea eta esnekiak: %33k gehitu egiten du kontsumoa
- Arrautzak: %8,4
- Haragia: %6,6
- Arraina: %26
- Barazkiak: %32,6
- Lekaleak: %12,3
- Fruta: %58,1
- Ogia: 8,4
- Oliba olioak: %3,1

- Gurina/margarina: %4,8
- Azukrea/ gozokiak: %11,5
- Edari alkoholduak: %82k edateari utzi dio

URAREN KALITATEA

Kontuan harturik, galdeketa egindako emakumeen % 87k ohituraz iturriko ura kontsumitzen duela, kanpaina bat burutu dugu ur laginak hartzeko banaketa sareetan. Hauetan aztertu nahi duguna, klorazioaren ondorioz sortzen diren konposatuak dira, zehazki Trihalometanoak (THM), ugarienak baitira, eta beruna eta artsenikoa. Konposatu kimiko hauen batez besteko kontzentrazioak hauek dira:

- Trihalometanoak: 24,2 µg/l
- Beruna: 1,8µg/l
- Arsenikoa: 0,5 µg/l
- Nitratuak: 3,5mg/l

Trihalometanoei dagokienez, hemen dituzue batez besteko kontzentrazioak, herriaren arabera:

UDALA	BATEZ BESTEK. µg/l	UDALA	BATEZ BESTEK. µg/l
Altzaga	21,4	Lazkao	19,4
Arama	27,9	Legazpi	22,9
Ataun	18,7	Mutiloa	25,9
Azkoitia	19,4	Olaberria	42,6
Azpeitia	22,4	Ordizia	32,6
Beasain	13,9	Ormaiztegi	39,1
Beizama	5,6	Segura	22,6
Errezil	4,3	Urretxu	32,6
Ezkio-	10,2	Zaldibia	11,6
Itsaso			
Gaviria	19,3	Zegama	5,4
Gaintza	23,2	Zerain	19,6
Idiazabal	28,1	Zumarraga	17,6
Itsasondo	23,6		

Orokorrean, esan dezakegu, kontzentrazio hauek oso txikiak direla, bai metalen kasuan, baita Trihalometanoen kasuan ere. Horretarako, kontuan hartu beharreko erreferentziazko baloreak honakoak dira:

- Trihalometanoak: 100 µg/l
- Beruna: 25 µg/l
- Arsenikoa: 10 µg/l
- Nitratuak: 50 mg/l

AIREAREN KALITATEA

Airearen kanpainak maitzean hasi ziren, Goierni eta Urola bailaretako aire kutsadura neurtzeko. Batez ere, partikula txikien kontzentrazioak eta hauen osagai metalikoak eta hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP) neurtuko dira.

Honetaz gain, Nitrogeno dioxidoa (NO₂) eta "Konposatu Organiko Hegazkorak" jasotzen dituzten aire kaptadoreak ipini ziren, parte-hartzaileon etxe batzuetan eta zuetako batzuk aire kaptadore hauek, arropatik zintzilik eraman zenituzten bi egunez. Etxeetan Hartutako laginen datuak ez ditugu izango hurrengo informazio orria prestatzen dugun arte.

Oraingoz, partikula eta metal kontzentrazioen datuak soilik ditugu, eta hauek dira partikulei dagokionean lortu ditugun datuak:

UDALA	BATEZ BESTEKOA (µg/m ³)
Ataun*	18,8
Azkoitia	35,4
Azpeitia	26,5

Beasain-Lazkao-Ordizia	20,5
Legazpia	18,8
Olaberria	22,9
Zumarraga-Urretxu	20,2
GUZTIRA	21,8

* Taulan agertzen ez diren gainontzeko herrientzat, Ataungo balorearen antzekoa izango dela uste da.

Orain arte ditugun datuekin, ezinezkoa da urteko batez besteko baloreak kalkulatu ahal izatea eta Europako Elkarteko batez besteko baloreekin konpararketa egitea. Hurrengo informazio orrian, balorazio hau luzatu ahalko dizuegulakoan gaude.

Honetaz gain, aipatu, ekainaren bukaeran berriro egingo dugula beste kanpaina bat, NO₂, konposatu organiko lurrinkorrak eta ozono mailak neurtzeko.

AURRERA BEGIRAKO INFORMAZIOA

Jarraian, hurrei lehen urtera arte egiten ari garen jarraipenaren argibide eta pausoak azalduko dizkizuegu:

ERDITZEAN:

Zilborrestetik odol lagin bat hartuko dugu, bertako kutsadura mailak aztertu ahal izateko.

OSPITALEAN ZAUDETEN BITARTEAN:

Hurrei, ile lagin bat moztuko zaie. Honen bitartez, haurraren gorputzeko merkurio mailak neurtu ahalko ditugu. Bestalde, Ospitaleko pediatrek zuen haurra baloratuko dute, bere pisua, talla, osasun egoera orokorra eta erreflejoak ebaluatzeko azterketa egingo diote.

LEHEN URTEAN ZEHAR:

Haurrak aurkez ditzakeen alergia, infekzio orokor eta arnas bidetakoak baloratuko ditugu. Baita urtebete horretan eramandako dietaren ingurua ere.

URTEA BETETZEAN:

Ospitaleko pediatrek, haurrak urtea betetzean, honen psikomotritzitatea eta garapen neurologikoa baloratuko dituzte.

Oharra: µg/l, mg/l baino mila aldiz kontzentrazio txikiagoa da. 1g = 1000 mg = 1000 000 µg